

# Lanbide Heziketako materiala euskaraz

**Lanbide Heziketako Zikloak ez dira beste hezkuntza-mailak adina euskaldundu. Egun, alor horretan euskarazko eskolen eskaintza ez dator bat ikasle euskaldunen proportzioarekin, ezta eskolak euskaraz emateko irakasleen gaitasunarekin ere, askoz ere baxuagoa da.**

HEZIKETA-ZIKLOETAN IRAKASLEEN ERDIAK, gutxi gorabehera, eskolak euskaraz emateko gai dira; alabaina, zikloetan diharduten ikasleen % 10ek baino ez dituzte eskolak euskaraz jasotzen.

Datu horren atzean arrazoi asko daude, baina, dudarik gabe, euskarazko ikasmaterial egokirik eza da garrantzitsuenetako bat. Gutxi dira Heziketa Zikloetarako argitaratutako euskarazko liburuak eta, oro har, ikasgai komunetakoak dira; hau da, ikasle guztiek landu behar dituzten ikasgaietakoak.

Izan ere, Heziketa Zikloen izaerak berak, hau da, gai-dispersio handiak, ikasgai askotan erabiltzaile potentzialak oso gutxi izatea ekarri du. Ondorioz, eskola-liburuak argitaratzen dituzten argitaletxeek ez dituzte, oro har, gai horietarako materialak ekoizten, gai komunak ez badira behintzat. Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak atzen urteotan



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

EIMA programaren bidez diruz laguntzeko eginiko ahaleginak fruituak eman baditu ere, eta ikasmaterial-eskaintza asko ugaritu bada ere, oraindik ere oso urria da eskaerarekin eta beharrekin konparatzen bada.

*“materiala aztertu eta erabili ondoren, ekarpenak eginez osa eta biribil daiteke”*

Egoera horri aurre egiteko, Lanbide Heziketako HETEL eta IKASLAN elkartek Lanbide Ekimena deituriko proiektua jarri dute martxan. Proiektuari aurre egiteko hainbat erakunde eta enpresa pribatu zein publikotan

ate-joka jardun ondoren, Eusko Jaurilaritzako Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren, Bizkaiko Diputazioaren eta BBKren laguntza lortu dute. 2001eko irailean jarri zen proiektua abian.

Irakasmaila horretarako eskola-materiala euskaratu eta formatu elektronikoa Interneten erabiltzaileen eskura jartzeko hainbat urterako plana da Lanbide Ekimena.

Proiektuaren helburu nagusia Heziketa Zikloetarako euskarazko materiala guztion eskura jartzea da. Hori, ordea, ez da egun bateko kontua, Lanbide Heziketako eskaera handia baita: 20 familiatik gora, familia bakoitzeko batez beste 6-7 ziklo, eta ziklo bakoitzeko batez beste 6-7 modulu.

## Material-hautaketa

2001eko ekainean jarri zen martxan proiektua eta, urtea amaitzerako, erabakita zegoen zein gai itzuliko ziren.


Guztira, Fabrikazio Mekanikoko, Administrazio eta Elektrizitatea/Elektronikako goi-mailako eta erdi-mailako hamaika ziklo hautatu ziren: Mekanizazioa; Proiektu Mekanikoen Garapena; Soldadura, Galdaragintza eta Erakuntza Metalikoak; Galdaketa eta Hautsen Metalurgia bidezko Produzioa; Kontsumo Ekipo Elektronikoak (goi-mailakoa eta erdi-mailakoa); Produktu Elektronikoen Garapena; Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak; Telekomunikazio Sistemak eta Sistema Informatikoak; Administrazio Kudeaketa eta Idazkaritza.

2002ko urriaren 31n beste lau familia-tako materiala itzultzen hasia erabaki zen, horien artean, Osasungintza, Informatika, Produkzio Zerbitzuak, Mantentze Lanak eta Nekazaritza eta Abere Hazkuntza.

### Materiala euskaratzea

Lanbide Ekimena proiektuaren alde teknikoaz arduratzeko eta lana koordinatzeko, ELHUYAR Fundaziora jo zuten sustatzaileek, itzulpengintzan eta lexikogintzan zein terminologia-alarrean duen esperientziagatik. Alabaina, ardura horretan ELHUYAR Fundazioa ez dago bakarrik, EAEko beste zenbait itzulpen-entresaren eta itzultzaileen parte-hartzea bultzatu eta koordinatzen baitu.

Itzultzen hasi aurretik itzuliko diren gai eta liburuen hautaketa egiten da. Hautaketa hori eskoletako irakasleek egiten dute ikasleen beharrak kontuan hartuta.

Bestalde, erabiltzaileak nagusiki Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleak izango direnez, haien artean ezaguna edo gertukoa den gunean dago materiala; hain zuzen, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak Elgoibarko IMH institutuaren zerbitzarian antolatutako ataria aukeratu dute horretarako ([www.jakinbai.org](http://www.jakinbai.org)). 


# Ilunantzean ibil ez zaitez

ELHUYAR FUNDAZIOAREN ESKUTIK:

# teknopolis

ZIENTZIA ETA TEKNIKAREN DIBULGAZIO-MAGAZINA

I G A N D E A N

etb  20:00etan

etb  12:40an

Babesleak:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritzaren Hezikuntza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea